

ITSASOAREN ILUN
Itxaso Munariz, 14 urte
Idiazabal

Itsasgora
Itsasbehera,
Beltz jantzirik
Itsasoa.
Harkaitz beztuak,
Hegazti uxatuak.
Joan da bai,
Joan da itsasoaren argi,
Joan da bertako eder.

Goizeko lehen argi-izpiek ere,
Ezin argi ilundutakoa,
Ezin konpondu suntsitutakoa.
Eta ezin, ezin
Itsasgizonen bihotzak argitu.

Portu ertz barrenean,
Arrantzalea,
Bere bain gain sarturik,
Negarraren,
Amorruaren islada
Distiratzen.

Gabonak hemen,
Urte zahar gertu,
baina, ospakizunik gabeko egunak hauek,
Hainbat eta hainbaten bihotzetan.

Hala ere,
Izango da bai,
Gizon buru ugari,
Gabon hauetan,
Nahiko itsaskin jango duena ere.
Haien lanarekin ez,
Itsasoa berpiztu.
Errua,
Beraiek dute erru guztia.

Hilabete pasatxo,
Ondamenaren hondamen.
Eta bada bai,
Orain lehen egin beharrekoa,
Egiten ari dena ere.

Baina hainbat samin ere,
Pasaak gara,
Eta itsasoaren biran,
Nahigabearen putzuetan,
Joango da hau ere.
Itsasoa argi,
Bihotza alai,
Irribarrea...
Ikus arte,
Hainbat egun eta gau igaroko baititugu.